



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIARIEN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Izan ere, maite zaituztenak bakarrik maite badituzue, zer sari zor zaizue?”

2023ko otsailaren 19a
Urteko 7. igandea (A)

Mateo 5, 38-48.

“Badakizue legean agindua: *Begia begiaren ordain, hortza hortzaren ordain*. Nik, berriz, hau diotsuet: Gaizkileari ez gaizki erantzun; bestela baizik, eskuineko masailan jotzen zaituenari eskaini beste masaila ere; soinekoa kentzeko auzitara eraman nahi zaituenari eman soingainekoa ere; norbaitek kilometro bat egitera behartzen bazaitu egin bi berarekin. Eskatzen dizunari eman, eta dirua uzteko eskatzen dizunari ez ukatu.

“Badakizue legean agindua: *Maitatu lagun hurkoa* eta gorrotatu etsaia. Nik, berriz, hau diotsuet: Maitatu etsaiak eta egin otoitz pertsegitzen zaituztenen alde; horrela, zeruko zeuen Aitaren egiatzko semealaba izango zarete, hark zintzoentzat eta gaiztoentzat ateratzen baitu eguzkia, eta zuzenentzat eta zuzengabeentzat isurtzen euria. Izan ere, maite zaituztenak bakarrik maite badituzue, zer sari zor zaizue? Zergalariek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Eta zeuen senideak bakarrik agurtzen badituzue, zer egiten duzue berezirik? Jentilek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Izan zaitezte, bada, guztiz onak, zeruko zuen Aita guztiz ona den bezala.

Maite egizue etsaiak. Jesusen jarraitzaileak maite izan behar dau etsaia, eta otoittanaren bakardadean bere alde otoi ere bai. Jainkoaren seme baten izatetik dator hor.

MAITATU KALTE DAGIGUNA

José Antonio Pagola

Maitasunerako deia erakarlea da. Segur asko, jende askok entzun ohi zuen atseginez Jesusen gonbita, gizon-emakume guztien aurrean jarrera ireki, adiskidetsu eta bihotz handikoa izatera dei egiten zienean. Gutxiena espero zutena zen etsaiak ere maitatu behar zirela entzun beharra.

Zoro batek bakarrik esaten ahal zuen, halako konbentzimenduz, hain gauza zentzu gabea eta pentsaezina: «*Maitatu zeuen etsaiak, otoitz egin pertsegitzen zaituztenentzat, barkatu hirurogeita hamar aldiz zazpitan...*». Ba ote daki Jesussek zer esaten ari den? Hori ote da Jainkoak nahi duena?

Eskandalizaturik entzun zioten entzuleek. Ahaztua ote du Jesussek Erromaren mende dela bere herria? Ahaztuak ote ditu haren legioek egin dituzten triskantzak? Ez ote du ezagutzen Galileako laborariek jasan zuten ustiaketa, lurjabe boteretsuen abusuen aurrean babesgabe? Nolaz hitz egin dezake etsaiei barkatzeaz, den oro gorrotorako eta mendekurako delarik?

Alabaina, Jesus ez da mintzo apetzaz. Jainkoaz duen esperientziatik atera zaio gonbita. Guztien Aita hori ez da indarkeriazale, baizik errukitsu. Ez dabil nola mendekatuko, ez daki zer den gorrotoa. Maitasun baldintzarik gabea du guztiekiko: «*Gizaki on eta gaiztoentzat aterarazten du eguzkia, zuzen eta zuzengabeentzat bidaltzen euria*». Ez du inor bereizten. Ez ditu maite leial zaizkionak soilik. Guztientzat du irekia bere maitasuna.

Bere maitasunetik inor baztertu ez duen Jainko honek bera bezala bizitzera eraman behar gaitu. Hauxe da, laburturik, Jesusen deia. «Izan Jainkoaren antzeko. Ez izan inoren etsai, ezta zuen etsai direnena ere. Maita itzazue, zeruko zuen Aitaren dinako izan zaitezten».

Jesusek ez digu eskatzen etsaiak ma Ken gorrotoa eta areriotasuna. Bidali hau iteenak ditugun pertsonentzat dugun afektuz eta txeraz maitatzeko. Etsaia maitatzea hauxe da soilki: ez mendekatzea, ez kalterik egitea, ez gaitzik desiratzea halakoari. Aitzitik, harentzat zer den on pentsatzea. Gu geu hartuak izatea nahi genukeen bezala, guk haiek hartzea.

Daitekeena ote etsaia maitatzea? Jesus ez da ari lege orokor bat ezartzen. Bere jarraitzaileei egin die gonbita Jainkoaren antzeko izatera, bere seme-alaben artean gorrotoa eta areriotasuna galduz joan daitezten. Jesusen antzeko izaten ahalegintzen dena bakarrik irits daiteke gaitza opa diotenak maitatzera.

Hark erakarririk ikasiko dugu inor ez gorrotatzen, erresumina gaintitzen, guztiei on egiten. Jesusen gonbita da «*pertsegitzen gaituztenentzat guk otoitz egitea*»; segur aski, geure bihotza apurka eraldatuz joan gaitzen. Kalte dagiguna maitatzea ez da gauza erraza; baina horixe da gurutzera eraman zutenen alde otoitz eginez hil zen haren antzekoago egiten gaituena: «Aita, barka iezaiezu, ez baitakite zer ari diren».